



2022-LEHIAKORTASUNA

III.ERANSKINA

JARRAIPENA

Balorazio irizpideak aplikatzeko kontuan hartuko diren alderdiak



OHARRAK

Jarraian eskabidearen balorazio egokia egin ahal izateko eskaera –proiektuaren memorian jorratu beharko liratekeen arloak azaltzen dira.

Aplikatiboan eskaera txostenaren formularioa betetzea derrigorrezkoa da, aurkeztutako proiektuaren dimentsio osoa behar bezala ulertzeko informazio nahikoa jasoko duena

Horretaz gain, dokumentu osagarriak erantsi daitezke aplikatibora.



Helburua

HAUTAGARRITASUNA

- Proiektuaren kokapena **Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa** arautzen duen 2021eko ekainaren 15ean Diputatuen Kontseiluak onartutako erabakiaren **III. Eranskineko 3. oinarrian** aurreikusitako jarduera hautagarrien barruan

ZERTARAKO

- Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa
- Aldatu/hobetu nahi den egoeraren deskribapena/diagnostikoa
- Helburua
- Aplikazio eremua
- Lortu nahi diren emaitzak/hobekuntzak
- Orain artean garatutako jarduerekin alderatuz proiektuak duen balio erantsia
- Merkatuetan, fakturazioan izango duen eragina
- Proiektuak enpresaren iraunkortasunean eta lehiakortasunean duen eragina
- Proiektuak enpleguaren sorreran eta mantentzean duen eragina
- Proiektuak enpleguaren kalitatean duen eragina

Garatuko den proiektua

ZER - NOLA

- Garatuko den proiektuaren eta ekintzen deskribapena
- Proiektuaren dimentsioa eta hedadura
- Erabiliko den metodologia
- Aurreikusitako egutegia
- Entregagaiak

NORK

- Proiektuan parte hartuko duten erakundearen deskribapena
- Departamentuarekin harremanak izateko taldea izendatzea
- Aurreikusitako lan taldea: pertsonak (gaitasunen profila barne) eta baliabideak

Garatuko den proiektua txertatu/barneratuta/landu eduki beharko lituzke, besteak beste:

- Garatuko den proiektuaren jasagarritasuna eta bideragarritasuna bermatuko duten mekanismoen txertaketa proiektuan
- Proiektuan jasagarritasun hirukoitzarekin (soziala, ekonomikoa eta ingurugirokoa) erlazioa duten aldagaiak sartzea
- Izaera Eraldatzailea: proiektuaren elementu eraldatzaileak, eraldaketa maila.
- Elkarlanaren eta prozesu parte-hartzaileen antolaketa: Entitate parte-hartzaileek hartutako konpromisoak, barruko nahiz kanpoko elkarlana, arloen artekoa eta garatuko diren prozesu parte-hartzaileak edo parte hartzeko ereduak, sektore publikoa eta pribatuaren parte hartzea, informazio eta kontsulta prozesua, lankidetzan aritzeko bitartekoak, parte hartzearen justifikazioa, beste proiektu batzuetako esperientzia...
- Genero ikuspegiaren txertaketa proiektuaren diseinu eta garapenean
- Euskara sustatzeko ekintzak: Zein arau eta prozedura euskarri ditu garatuta entitateak (planak, eta abar), zein esperientzia, entitatearen jardueran euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokienez? Proiektua garatzean, zein izango da euskararen erabilerari emango zaion tratamendua? Zein neurritan egingo dio ekarpena proiektuak euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokionez?
- Bi hizkuntza ofizialen tratamendua
- Aurreikusitako ebaluazio, jarraipen eta neurtzeko sistema eta emaitzen aplikagarritasuna
- Garatuko den jarduketaren jasagarritasuna



Garatuko diren zereginak eta azpizereginak

NOLA eta NOIZ

- Zereginen atalak eta azpiatalak azaldu:
 - Helburuak
 - Deskribapena
 - Parte hartzaileak
 - Entregagaiak
- Zereginen egutegia:
 - Noiz hasi eta noiz amaitu
 - Zenbat orduko lana

Aurreikusten diren zailtasunak

ZAILTASUNAK

- Diagnostikoa
- Diseinua
- Plangintza eta antolaketa
- Gauzapena
- Koordinazioa
- Bestelakoak